

Inaxio Lertxundi Ameztoui

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1932-2017)*

Aurkibidea

Biografia



Santa Marina kalean jaioa, emaztea ere kale berekoa du, eta bertan bizi dira. Ongi ezagutzen ditu kale horren gainerako kontuak. La Salle ikastetxearekin harreman zuzena izan du beti.

Zintak

ZAR-001

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-11-10
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Sta Marina kalea.

- **Erref:** ZAR-001/001
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1932an jaioa Santa Marina kalean. Bera jaio zen urtean egin zuten Santa Marinako ermita. Emaztea ere bertakoa da. Ez da asko aldatu Santa Marina kalea. Eskolan non ibili zen.

2. Egurra lantzen zuten lantegiak

- **Erref:** ZAR-001/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Zarautzen asko lantzen zen egurra. Arrutik San Pelaion zuen lantegia: Palacio del mueble. "Eguzki" izeneko armairu bat atera zuten eta asko esportatu zuten kanpora. Beraiek egurrari eutsi diote beti. Egin izan dituzten lanak.

Transkripzioa

- Egurra asko landu da Zarautzen, e? Arotz asko, ta ebanista asko, ta...
- Lehen, oain dana galduta, baiño lehen ona, lehen, lehen egurrian Zarautza zan maixu. Esto... ez dakit aitzia izango dezuen, Arruti, Arruti? Horrek taillarra lehen San Pealion zakan, Palacio del Mueble o deitzen ziyoen, ez dakit gooatuko zeaten. Eta hoiek... hoiek iten zuen, nik uste det, Españan muebleik onenak behintzat, Europan ta 're oso zeatua zeon, konsideratua, zea, esto, e, Arruti taillerra. Hoiek atea zuen armaio bat, Eguzki jarri ziyoen izena armaio hori. Eta hori, esto, Rusira ta dana esportatzen zuen, zeatik armaio bat zan, esto nik, ba, kataloguak eta

bazkat eta, nik handikan, harrezkeo ibili izandu naiz Valentziyan ta feri guztitan, baiño halako armaioik ez ditut ezautu. Harrek [...], hark zezkan egurrak eta haiek zazken gauzak, eta... [...] onak bazaben. Geo, ba, zerian 'e hasi zian, ta hasi zian kartoiakin muebliak iten. Guk ez ditugu hola iten, e! Oaingo mouan kartoiakin, txapa o jarriko diyoe, eta, eta hori hasi zan ta, ba, beno, beno. Ta nik orduan enkargoko lana iten gendun, ta esan niyon semiai: "hi, guk geuriai eutsi in ber zious, e!". Eta, bastante eutsi diyou, eta, guk hola, aglomeratuan eta lan gutxi iten deu oso. Dana zan, esto, egurrian ta... Geo, gaitzez, tokatu zaku, ba, gauza nahiko majuak itia. Ez dakit ezautuko dezuen Kiruri? Azpeitiyan Kiruri? Oan in dan berrikuntza, oan taberna ta mostradoriak eta zeak, hoiek danak guk ein genitun, e! Eta geo, ba, joyeiyak eta hola, zean, Zumarragan ta Legazpin ta 're asko montau ditugu. Baiño joyei onak, e, mueblei onakin ta. Hortan suertia euki deu ta semiak eta nere mouko kijote antxequak gea, ta ez perru txiki bat irabazi ez, e, baarrunantzat aña ateatzen bada, nahio holako mueble zea, gauza, trastiak hala in baiño... Ta egurra maite izandu deten pertsona naiz. Nik egurra maite det, maite. Ta egurrai usaia, ta zea, egurrak bere usaia eukitzen ditu danak, e! Ta usaia, ta zea, ta. Usaia nola? Ba, nik usaia aitzen ziot, eta, betak eta nola ta zea... Atsegingarriya da egurra.

- Bestela, baserritako ta itsasontzietako ta holako lanik?
- Ez, baserritako ta itsasontzietako ez, ez, ez.

3. Eliz-giroko lagunak izan ditu

- **Erref:** ZAR-001/005
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Beti eliza giroan ibili izan da eta ez du kuadrilla handirik izan. Eliz-giroko Arrasateko bi lagun zituen kooperatibak sortzen ibili zirenak. Zarautzen tailer handi bat jarri nahi izan zuten, baina lurrengatik diru asko eskatzen zieten. Oso elizkoiak ziren.</p>

4. Gaztetako zaletasunak: billarra, ajedreza eta mendi-irteerak

- **Erref:** ZAR-001/006
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Emaztea auzoan ezagutu zuen. Gaztetan billarrean eta ajedrezean jokatzen zuen. Mendira ere asko joaten zen, bai bere kontura eta baita antolatutako bidaietan ere: Azpeitiko Olatzera, Arratera..

5. Garai dinamikoa; Cachi Bachiren sorrera.

- **Erref:** ZAR-001/008
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:16:08. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Boxeoa
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Bere garaia atletismorako garai egokia izan zela dio, garai dinamikoa izan zelako. Cachi Bachi elkarte sortu zen eta elkarte honek hartu zituen boxeoa, atletismoko kontuak, arrauna... Boxeolari onak ere atera ziren eskualde mailan. Lasarteko Irubiden musika egoten zen eta eskualdeko jendea biltzen zen. Beti borrokan bukatzen zuten.

Transkripzioa

- Ta kirola, garai hartan, ze kirol? Mendia, mendi asko iten zan, mendia asko ibiltzen zan jentia, mendian?

- Orduan mendian? Bai, ibiltzen zan. Kirola, kirola, e, gu behintzat pelotan iten gendun gehiena. Fubolian, ta, geo hasi zian fubolian ta zea. Ta geo izan zan gure garaian izan zan, e, une zea bat, egoki bat, atletismokua. Zeatikan Cachi Bachi, ez dakit esan deten, Cachi Bachi sortu zanian, ba, orduan Club Deportivo eta Cachi Bachin artian halakoxe zea sortu zan zeatikan, zeatikan beti Club Deportivok uste izan du, uste izandu du, ba, beak izan behar zula herriko zea, e, kirola eamaten zun klub bakarra. Ta ez zan konturatzen klub bat zala, e, ta kluba ondo zio, eaman zak nahi deken guztiya, baiño. Ta Antonianokin ta halaxe ibili zan. Aizu, uste zun, ba, Antonianon ateatzen zian futbolistak eskolan Clubea jun behar zuela. Ta Antonianok ezetz: "hi, guk aurea ateako dixkiagu ekipo hoiek", eta. Orduan sortu zan, ba, e, haiek, Cachi Bachikuak egokitu zian kuadrilla bat, hartu zuen boseua, hartu zuen atletismoko gai guztiyak, arrauna 're hartu zuen, eta zea, ta orduan, neu 're pixkat haiekin ibili nitzan, ta, zean ta. Pixkat boseuan ta 're ibili izandu naiz [...], eta eman ez nitun asko iten, baiño earrak hartzen nitun. Eta, o sea, nahiko garai dinamikua izan zan zeatikan kuadrilla haundiya zan hua, eta atletismoko iya zea guztitan jutun zian: hasi belozidadeko karreretatikan, eta... Atletismuan olinpiadan ematen dian iya zea guztitan sartzen zian haiek. Bat o bi ateatzen zuen, eta. Gu haien atzetik jutun giñan, eta, zea. Ta geo, bosealaiak 'e oso onak zian, zeatikan nola, esto, e, gehiegi nola ez dan praktikatzen, ba, hemendik atea zian, ba, dozena erdi bat bosealai nahiko onak, probintzi maillan ta ondo ibiltzen zianak, eta geo kuadrillan haiekin entrenatzen zianak eta 're boseuan zekiyenak zian. Eta gertatu zan, gertatu zan, oan parre ingo dezue honekin, baiño, hemen, esto... garizuman ta zea ta, ba, musikik ez zan jotzen, dana, o sea, riguroso, ta. Eta orduan musika jartzen zan Hirubiden, Lasarteko Hirubide, hor jartzen zan eta probintzi guztiko jendia horrea jutun zian dantza ta zea. Eta bukaeran, ba, burrukan bukatu behar izaten zan dana. Eta habek ez zaken jotzeik, federauta zaben, ta ez zakaen jotzeikan. Eta orduan ikasi zuen, hola heltzen ziyon zeatikan hola batei, ta dan!, buruakin jotzen. Nokao laatzen zituen danak, e, hoiek, ta!, buruakin jota, ta holakoxiak.

6. Gose denborako lapurretak.

- **Erref:** ZAR-001/009
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>44 urte inguruan errazionamendua eta gosea ziren nagusi. Aldapetan zain egoten ziren kamioietatik janaria lapurtzeko.</p>

7. Emakumezkoak gerra-ostean erdaraz

- **Erref:** ZAR-001/014
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Emakumezkoek gehiago hitz egiten zuten erdaraz gerra ostean, baina aurreragokoek euskaraz egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta emakumezkuak 'e bai, euskeraz iten zuen?
- E?
- Emakumezkuak ere, hola kalia, ta beaien artian...
- Emakumiakin gutxi ibiltzen nitzan ni ta... Tamalez, ta earra galdu nun! Baiña, erderaz gehio emakumezkuak, e, bai. Oan, eon zaitez piskaten, gure andria nola iten zuen: gure andriak eta kuadrillan erderaz iten zuen. Bai, hori gootzen naiz. Gure andria ta, e, haren kuadrillakin banun... Haiek beti alkarren artian erderaz iten zuen. Baiño guk mutillak, ni ez naiz akordutzen mutillak hamen erderaz sumatu nitunenikan. Euskeraz. Cachi Bachiko hoiek eta, hoiek dana euskeraz. Ta oaindikan 'e hala iten due hoiek.
- Eta emakumiak erderaz, baiña, ya gerra ostian, ez?
- Gerra ostekuan.
- Zuen, e, zuen, e, ama ta amona ta...
- A, ez, gure amak, gure amak, gure amak gaiñez nahiko euskera ona iten zun zeatikan, e, berez ama zeakua zun, Bidanikua. Eta haren euskera iten zun pixkat. Aitak, berriz, beste moura iten zun, ta guk biyana entzun, ta ez dakit ze ateako zan, aizu! Hibrido bat ateako zan!

8. Zinearen inguruko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-001/016
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:31:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Asko gustatzen zitzaion zinera joatea. Zinea degeneratzen hasi zenean, jesuitek Aspa izeneko produktora sortu zuten.

9. Hoteletako arropa etxeetan garbitzen zen.

- **Erref:** ZAR-001/019
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

12 urtera arte kadi lanean aritu zen golfear. Gran Hotelera etortzen zirenei ez zieten bertan garbitzen arropa eta etxeetara eramaten zituzten. Bere ama eta izeba ere aritu ziren lan horretan. Aristokratek erabiltzen zituzten arropak.

10. Lehengo bizimoduaren eta oraingoaren arteko aldea

- **Erref:** ZAR-001/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:35:33. **Bukatu:** 00:37:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua nola aldatu den komentatzen du. Amak 6 seme-alaba eta lan izugarria izaten zuen eta hala ere kantuan ibiltzen zen. Bizimodu gogorra izan arren zoriontsuak ziren.

11. Lehenagoko medikuak familiengandik hurbilagokoak

- **Erref:** ZAR-001/022
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:42:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek

Laburpena:

Don Pako medikua. Orduko medikuek mediku lanez gain bestelakoak ere egin behar izaten zituzten. Orduko eta oraingo medikuen arteko aldea. Familiarekin erlazio hobea izaten zuten.

12. Txerri feria

- **Erref:** ZAR-001/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:44:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Santa Barbara egunean Txerri Feria izaten zen, eta jai egiten zen Zarautzen. Edozein etxetan hazten zituzten txerriak orduan. Txerri kalea: hiltzea kale horretan zegoelako jarri zioten izena.</p>

Transkripzioa

- Ekonomia ta lana, piska bat, periarik eta ba al zan Zarautzen garai hartan? Feriarik edo holako zearik? Azokaik iten al zan bereziya, edo...
- Bai, bai, bai. E, feri zaharrena gootzen naizena da, txerri-feriya Santa Barbara egunez iten zan.
- Txerri-feriya?
- Bai, txerri-feriya. Eta Santa Barbara egunez Zarautzan jai iten zan orduan. Aspaldiko kontua da hori oso, e! Eta, ta, txerri-feriya, bai, bai. Ta lehen, eozein itxetan zeon txerriya. Guk, itxian behian txerriya hazten gendun beti, itxian behian. Oan hoi debekatua dao sanidadetik, baiño lehen eozein kale basarri o zeatan, patiyo bat baldin bazuen, txerri-jana biltzen ibiltzen giñan, eta, guk beti, txerriya urtero hazi izandu deu. Oantxe hiltzen genun, San Martiñetan. Earrak eoten zian oolkiyak eta. Ta geo zeak iten, esto, txoixuak iten. Ta etxian ibili [...] ibiltzen giñan gu, bai.
- Ta azoka bereziya iten zan orduan?
- Azoka bereziya, txerri-periya, bai. Santa Barbara egunez iten zan.
- Ta, Txerri Kalek badu zerikusirik, izen horrek badu horrekin zerbait...
- Bai, e, Txerri Kalian, nik ez nun ezautu hori, baiño mataeia hor omen zeon, bai. mataeia hor omen zeon, eta igual hau, ez dakit, hau egitzat o jo laiken, baiño guk, txerriya eukitzen gendunian, geo guk mataeira eamaten gendun. Eta orduan mataeia, mataeia hamen San Pelaioiko onduan zeon. Ta, txerriyakin earki juten giñan gu, baiño, hor txerritegiya lehen, e, esto, mataeia zeon lekuan txerriya geatu iten zan, ta ez zun nahi aurea jun. Ta eman, eta azkenian karruak in genitun, ta karruan eamaten gendun. Ta guri, guri bezelaxe asko... "bai, bai, hortik ez dek pasako txerriya, hi!", ta, "zer da, ba?", ta, "ba, lehen hor mataeia omen zitxion", ta. Eta Txerri Kale biharbada hortik izango zan, kale, hori azkenengo kalia zan, Txerri Kale. Oan Herriko Barra jarri diyou harrei, baiño hori lehen azkeneko, ba, Herriko Barra bezela, azkeneko kalia izango zan, eta hori, e, kale-bire o baserri-bide bezela. Hortikan eamaten zian mataeira txerriyak, eta nik ez dakit, pentsatzen det horreatik jarriko ziyola Txerri-Kale, o. Ta geo, gaiñez, inguru hortan baatzak zian. Eta baatza hoietako txaboletan, hoiek danetan txerriya eoten zan, danetan txerriya.

13. Nola hasi zen industria zabaltzen

- **Erref:** ZAR-001/024
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:44:32. **Bukatu:** 00:47:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Hasieran egurra zen nagusi Zarautzen. Geroago alemanak etorri ziren: Keller, Glass.. Portzelana, musika-tresnak, purpurina fabrikak.. Horiek mugitu zuten industria. Gero Alfa ere etorri zen Zarautzera eta bulegoko altzariak egiten zituzten. Langile askoko lantegiak ziren, baina gaur egun ez dago halakorik.

Transkripzioa

- Bestela, jentea nola ezautu dezu, ze ofiziyotan, egurretik aparte, ze ofiziyo egon da hemen?
- Egurretikan aparte... Beno, lehenoa iya dana egurra zan, iya dana egurra. Geo etorri zian alemanak. Nik [...], alemanak etorri zian: Pielhoff, ta harek bere zea, portzelanazko gauzak iten hasi zan. Geo etorri zan Keller, hoiek iya danak bata etorri zian. Keller etorri zan, eta Kellerrekok egurrakin, ta, akordeoiak eta gitarrak. Orduan, akordeoiak eta gehio iten zituen. Ete geo, beste alemana, Pielhoff, Keller... a! Glas, Glas, Glas, ta horrek ez dakit zer iten zitun. Ta geo, Val, Valek purpurina fabrika jarri zun. Uain Roke Eizagirrek eta hor goian, Azpeiti bidian mahastiyak eta nola dazka? Hor badao itxe haundi bat oandikan, igual-igual dao. Eta... horrek purpurina fabrika. Ta Purpuriñeta deitzen zako horrei. Hiruerreketatik gora daon zea horrei guk deitzen giñun barriyo horrei Purpurineta, Purpurineta, bai. Eta...
 - Hoiekin hasi zan pixkat industria moitzen, ordun?
 - Hoiek hasi zian industria maitzen. Hemen aleman hoiek moitu zuten industriya. Eta, geo, geo, hasi zan, ba, hasi zian, ba, beste zean bat, e... Geo, Alfa 're, Alfak 'e orduan makinak iten zitun. Eta, e, hasi zan esto, makinak iten mueble ta guztikuak, e, lehengo makinak, bere mueblia ta. Bere muebletxo bat izaten zuen, ta gaiñian makina, ta geo, ra!, ta makina barroa sartzen zan. Eta muebliak [...] zian. Ta geo, tapak eta zea, ta. Hor, taillarra orduan Zarautzan montatu zun, Alfak Zarautzan montatu zun. Eta urte askotan muebliak in dia, baiño geo, nunbait, mueble asunto hori laga in da, makinak beste mou batea, portatillak eta gauzak eta. Eta geo Alfa, ba, ofizinako muebliak iten hasi zan, ta hua 're gaizki atea zitzakon, ta uan, Arrutikin ta ezkonduta daude, baiño... iya, iya, larehun langille zituen taillarrak kiebra jota geatu zian, ta atzeaka, atzeaka. Ez zuen jakin izandu adaptatzen ta zeakin, munduko egoerakin juten, eta geatu zian, ba. Eta lehenoa, adibidez, esto, hango bestia alemana, esto, zea, e, zein da?... Reich, Reich, horrek, horrek 'e, e, horrek makinai ona iten zun oso, eta ehun langilletik gora beti. Kellerrek 'e ehun langilletik, berrehun langilletik gora. Alfak 'e hirurehunetik gora. Eta geo, Pielhoffek 'e ehunetik gora. Eta kanpotik eta etortzen zan jendia. Ta geo, oain berrogeitik gorako taillarrak ez dao Zarautzen.
 - Bombas Itur.
 - Bombas Itur, hoixe, bai.
 - Gaiñontzen, udaletxea da lantegi haundiyena.
 - Udaletxia bai, ez da seiñale earra hori.

14. Aroztegian eta jertseak egiteko tailerrean lanean

- **Erref:** ZAR-001/025
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:47:48. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Bere emazteak aitaren tailerrean (aroztegian) lan egiten zuen hasieran. Gerora jertseak egiten zituzten tailerrean aritu zen lanean.

15. Garbitokietako arazoak eta txutxu-mutxuak

- **Erref:** ZAR-001/026
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Zalbideko garbitokia. Bere ama ere hara joaten zen. Hara eraman aurretik etxean txukuntzen zuten arropa zikin guztiak han ez uztearren. Bertara biltzen ziren emakumeak nolakoak ziren: batzuk txukunagoak, narratsagoak. Hoteletakoak joaten ziren asko.

16. Gerra hasierako pentsakera

- **Erref:** ZAR-001/027
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerra bukaera nola gogoratzen duen. 15 urtera arte uste izan zuen Franco salbatzailea zela, gerora enteratu zirelako alemanek nolakoak egin zituzten. Irakaslea ere falangista zuen eta alemaniarrek salbatzaileak zirela uste zuen. Zarautzera etorri ziren alemanak nola gogoratzen dituen. Bere senide batzuk boluntario joan ziren reketeekin.

17. Eliza eta Franco

- **Erref:** ZAR-001/029
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:56:23. **Bukatu:** 00:58:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Eliza ere Francoren aldekoa zen eta eskolan ere hala irakasten zietenenez, berandu konturatu zen ze gauza egiten zituzten. Gerora hasi zen euskararen inguruko mugimendua. Orduko gazte gehienak preso egondakoak dira.

18. Zirkulo karlista

- **Erref:** ZAR-001/032
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:04:24. **Bukatu:** 01:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Zirkulu karlista non zegoen. Frontoia zuen atzealdean eta zinea eta antzokia ere bazituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com